

## 2015-10-06KO OHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2015eko urriaren 6an, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesús Leunda Gurruchaga izan da, korporazioko alkate-lehendakaria, eta gai-zerrendako gaiak aztertzeke zinegotzi hauek agertu dira:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jesús Maria Alonso Insausti, José Ramón Epelde Irizar, María Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainhoa Ugalde Gorostiaga, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, José Ignacio Imaz Bengoechea.

-Azaldu ez diren zinegotziak:

-BILDU udal taldekoak: Olaia Nieto Legarra.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, bertara agertu baita gutxieneko partaide-kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutakoa.

Udalbatzaren puntuak hasi aurretik, biztanle bat etorri eta eskatu dizkio Maria Cristina Santos San Sebastian zinegotziari azalpenak, jaietan gertatu zen gora-behera bati buruz, bien artean. Azkenean gai pribatua zenez ez da izan eztabaidarik.

### LEHENENGO GAIA:

**UDALBATZAREN AZKEN AKTAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO. (2015-07-21).**

2015eko uztailaren 21eko ezohiko saioaren aktaren zirriborroa aurkeztu da, eta aho batez onartu da.

## **BIGARREN GAIA:**

### **ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2015/145-TIK 2015/220-ARTE.**

Alkateak honako dekretuen berri eman dio Udalbatzari:  
2015eko 145 zenbakitik 220 zenbakira bitartekoak.  
Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

## **HIRUGARREN GAIA**

### **2015EKO UZTAILAREN 22KO 178/15 ALKATEAREN DEKRETUA, UDAL TRINKETEKO KONTROLERAKO BIDEOKAMERAK INSTALATZEKO, BERRESTEA, HALA BADAGOKIO.**

2015eko uztailaren 22ko 178/15 Alkatearen Dekretuaren berri ematen da:

“Irurako Udalak, Zillar Kalea, 2an dagoen udal Trinketeko kontrolerako bideokamerak instalatu eta erabiltzeari ekin nahi dio.

“Este Ayuntamiento de Irura de cara a controlar el edificio del Trinkete Municipal, sito en Zillar Kalea, 2, quiere proceder a la instalación y uso de videocámaras.

15/99 Legearen 20 artikulua kontutan hartuta: izaera pertsonaleko datuen fitxategiak sortzea, aldatzea eta kentzea, dagokion Boletín ofizialean iragarritako xedapen orokorraren bidez siolik egin daitekeela, bertan adierazten du zein den xedapen horren oinarritzko edukia.

Teniendo en cuenta el artículo 20 de la Ley 15/1999, que establece que la creación, modificación y supresión de datos de carácter personal sólo podrán hacerse por medio de disposición general publicada en el boletín oficial correspondiente. En dicho artículo señala, así mismo, el contenido básico de la citada disposición general.

Datuen Babeserako Erregistroa eratzen duen 2/2004 Esuko Legbiltzarraren Legearen 18 art-k diona kontutan hartuta: bere eremuan sartzen diren datu pertsonalen fitxategiak bertan inskribatzeko beharra ezartzen du.

Teniendo en cuenta el artículo 18 de la Ley del Parlamento Vasco 2/2004 de creación del registro de protección de datos, que establece que serán objeto de inscripción en dicho registro los ficheros de datos personales incluidos en su ámbito.

Kontutan hartuz 308/2005 Dekretua, 2/2004 Legea garatzen duena- ezartzen du Euskal Komunitate Autonomoko Entitate publikoek Datuen Babeserako Euskal

Teniendo en cuenta el Decreto 308/2005, de desarrollo de la Ley 2/2004, que establece que los Entes Públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco deberán notificar a la Agencia Vasca de Protección de Datos toda creación,

Agentziari jakinerazi behar diotela izaera pertsonako datuen fitxategien sorrera, aldaketa edo deusezte oro, horetarako ezarritako modelo normalizatua erabili behar delarik.

Hori dela eta, honako proposamena,

#### ERABAKI DUT:

Lehen.- Baimena ematea bideokamerak instalatzeko eta erabiltzeko, Trinketeko eraikinean Zillar Kalea, 2an.

Bigarrena.- Datu pertsonalen fitxategi hau sortzea, eranskinean jasotzen diren xehetasunekin:

-Fitxategiaren izendapena: Trinketeko eraikinaren zainketa.

Hirugarrena.- Ebazpen hau argitaratzea Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Datuen Babeserako Euskal Agentziari jakinerazi.

Laugarrena.- Udalbatzari jakinaraztea ,egingo duen lehenengo bileran, ebazpen hau berresteko, ahal bada.

#### ERANSKINA

##### DATU PERTSONALEN FITXATEGIA

1. Fitxategiaren izendapena: Trinketeko udal eraikinaren erabilpena zaintzea bideokameren bidez.

a) Fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak: Trinketeko

modificación o supresión de ficheros de datos de carácter personal, a través del modelo normalizado que al efecto se elabore.

Ante ello, se propone la adopción del siguiente

#### ACUERDO:

Primero.- Aprobar la instalación y utilización de cámaras de video vigilancia en el edificio del Trinkete municipal sito en Zillar Kalea, 2.

Segundo.- Proceder a la creación del siguiente fichero de datos de carácter personal, con los detalles que se recogen en el anexo:

Denominación del fichero: Vigilancia del uso del edificio del Trinkete.

Tercero.- Proceder a su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa y su notificación a la Agencia Vasca de Protección de Datos.

Cuarto.- Dese cuenta al Pleno de este Ayuntamiento, en la próxima sesión que celebre, para su ratificación, si procede.

#### ANEXO

##### FICHERO DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL.

1. *Denominación del fichero: Vigilancia del uso del Edificio del Trinkete Municipal a través de videocámara.*

a) Finalidad del fichero y usos previstos para el mismo: video vigilancia del uso de las instalaciones del edificio del

udal eraikinaren erabilpena zaintzea bideokameren bidez..

b) Zein pertsona edo kolektiborengandik lortu nahi diren izaera pertsonaleko datuak edo pertsona edo kolektibo horietatik nork eman behar dituen datuak nahitaez: trinketeko bezeroak eta erabiltzaileak.

c) Izaera pertsonaleko datuak biltzeko prozedura; trinketera zuzenean bertara joaten diren pertsonen bidez.

— Kámara domo CMR 352 X Lilin markakoa.

- 5P WAF zerbitzariko irudiak grabatzea..

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta bertan jasotako datu pertsonalen deskribapena: disko gogorrean eutsitako datu-basea. Irudia.

e) Datu pertsonalak lagatzea, eta, hala badagokio, aurreikus daitezkeen hirugarren herrialdeekiko datu-transferentziak: Segurtasun Indarrei eta Taldeei, Zerga Ministerioari, Epaileei eta Auzitegiei edo bestelako Herri-administrazioei lagatzea, zehapen-funtzioak gauza ditzaten, lege-izaera duen arau batek berariaz xedatzen duen kasuetan, Datu Pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11. artikulua ezarritakoaren arabera.

f) Fitxategiaren organo erantzuleak: Irurako Udala.

Trinkete Municipal y de su seguridad.

b) Personas o colectivos sobre los que se pretende obtener datos de carácter personal o que resulten obligados a suministrarlos: clientes y usuarios del trinkete.

c) Procedimiento de recogida de los datos de carácter personal: directamente de los clientes y usuarios del Trinkete.

— Cámaras domo CMR 352 X marca Lilin.

-Grabación de procesador de imágenes serie 5P WAF.

d) Estructura básica del fichero y descripción de los tipos de datos de carácter personal incluidos: base de datos en soporte de disco duro. Imagen.

e) Cesiones de datos de carácter personal y, en su caso, las transferencias de datos que se prevean a países terceros: cesiones de datos de carácter personal y, en su caso, las transferencias de datos que se prevean a países terceros: cesión a las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad, al Ministerio Fiscal, a los Jueces y Tribunales o a otras Administraciones públicas para el ejercicio de funciones administrativas sancionadoras cuando, en tales casos, esté previsto expresamente en una norma con rango de ley, según lo establecido en el artículo 11 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de protección de Datos de Carácter Personal.

f) Órganos de las administraciones Responsables del fichero: Ayuntamiento

de Irura.

g) Datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezeztatzeko eta horien kontra agertzeko eskubideak erabil daitezke Zerbitzu edo unitate hauen aurrean: Irurako Udala, San Migel Plaza, 1.- 20271- Irura (Gipuzkoa).

g) Servicios o unidades ante los que pudiesen ejercitarse los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición: Ayuntamiento de Irura, San Migel plaza 1- 20271, Irura (Gipuzkoa).

h) Segurtasun neurriak, beraien maila zehaztuz: Oinarrizko segurtasun maila.”

h) Medidas de seguridad con indicación de nivel: nivel de seguridad básico.”

Udalbatzak, aho batez, Alkatearen Dekretua berrestea erabaki du.

#### LAUGARREN GAIA

### 2015EKO UZTAILAREN 30KO 189/2015 ALKATEAREN DEKRETUA, KONTRATAZIO-MAHAIA ALDATZEKO, BERRESTEA, HALA BADAGOKIO.

2015eko uztailaren 30eko 189/15 Alkatearen Dekretuaren berria ematen da:

“2012ko martxoaren 27an Udalbatzak erabaki zuen behinbetiko Kontratazio-Mahaia izendatzea.

“Por acuerdo de Pleno en sesión celebrada el día 27 de marzo de 2012, se acordó nombrar una Mesa de Contratación con carácter permanente y su composición.

Kontuan hartuta Korporazio berriaren osaketa 2015ko maiatzaren Udal Haustekundearen bidez sortuta, haren aldaketa derrigorrezkoa eta larrialdikoa da bere helburua betetzeko.

Teniendo en cuenta la nueva composición de la Corporación resultado de las Elecciones Locales de mayo de 2015, hace necesaria proceder a la modificación del mismo y con carácter de urgencia para el cumplimiento de su finalidad.

Hori ikusita,

Ante ello

EBAZTEN DUT:

RESUELVO: :

1º.-Kontratazio-Mahaia honela eratuko da:

1º.-Que la composición de la Mesa de Contratación sea la siguiente:

-Lehendakaria:

-Presidente: El/la de la

Korporaziokoa edo eskuordetutako zinegotzia.

-Bokalak:

-1 zinegotzi EAJ/PNV Udal talde politikotik.

- 1 Zinegotzi EH Bildu Udal talde politikotik.

-Udaleko funtzionario edo laboral langile ba, kontratazioaren arabera.

-Idazkaria/kontu-hartzailea.

-Idazkaria:

Idazkaritzako/kontu-hartzailetzako funtzionario edo laboral langilea, ahotz hitz egiteko eskubidearekin baina boto eskubiderik gabe.

Hale ere, eta kontratazio motaren arabera, Mahaian parte hartu dezake aholkulari berezirik, hitz egiteko eskubiarekin baina boto eskubiderik gabe, eta Kontratazio-Mahaiaren lehendakariaren erabakiaren bidez.

2º.- Udalbatzari jakinaraztea, egingo duen lehenengo bileran ebazpen hau berresteko, ahal bada.

3º.- Erabaki hau jakinaraztea Udal talde politikoei.”

Udalbatzak, aho batez, Alkatearen Dekretua berrestea erabaki du.

Ainhoa Ugalde zinegotziak adierazten du udalbatzako dokumentazio denbora laburrean igortzen dela aztertzeko eta eskatzen du aurreko astearen ostegunean edo asteazkenean bidaltzea, ostiralaren ordez.

Agintzen da idazkaritzari horrela egitea.

Corporación o concejal en quien delegue.

-Vocales:

1 Concejal por el Grupo Municipal de EAJ/PNV.

1 Concejal por el Grupo Municipal de EH Bildu.

Un/a funcionario/a o laboral de la Corporación en función de la contratación.

-El/la Secretario/a-Interventor/a.

-Secretario:

Un/a funcionario/a o laboral de la Oficina de Secretaría-Intervención con voz pero sin voto.

En todo caso y de acuerdo con el tipo de contratación se podrán incorporar a la Mesa, con voz pero sin voto, asesores especiales por decisión de la Presidencia de la Mesa de Contratación.

2º.- Dese cuenta del presente Decreto al Pleno en la primera sesión que celebre para su ratificación, si procediera.

3º.- Notificar la presente resolución a los grupos políticos municipales. “

## BOSGARREN GAIA:

### ALKATEAREN DELEGAZIOAREN BERRI EMATEA.

2015eko irailaren 28ko 220/12015 Alkatearen Dekretuaren bidez Alkatearen Delegazioak aldatzen dira.

“Alkateak 2015eko uztailaren 10eko 167 dekretuaren bidez erabaki zuen zinegotziei euren sailei dagozkien gaiak kudeatzeko baimena ematea.

Denbora igaro ondoren komenigarria da eman dena aldatzea.

Horregatik, Alkate honek, legeak aitortzen dizkion eskumenaz baliatuta,

#### ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Kontu, Ogasun Administrazioa, Ekonomia eta Enpleguari buruzko informazio Batzorde Bereziaren Sailan emandako gaiak kudeatzeko baimena Jesús María Alonso Insausti zinegotziari anulatzea eta neronek kudeatzea.

Bigarren. Erabaki honek gaur bertan bere eragina izango du.

Hirugarren. Erabaki honen berri ematea aipatu den zinegotziari.

Laugarren.- Hala ere honen berria ematea Udalbatzari hurrengo bileran.

“Por Delegación de la Alcaldía nº 167 y fecha 10 de julio de 2015, procedió al establecimiento de delegación de competencias en los concejales de la Corporación.

Visto el tiempo transcurrido es conveniente proceder a una modificación entre las conferidas.

Por todo ello, esta Alcaldía, en uso de las atribuciones que legalmente tiene conferidas

#### RESUELVO:

Primero.- Abrogar las competencias delegadas en el Concejal D. Jesús María Alonso Insausti en el área de Comisión Informativa de Cuentas, Hacienda, Administración, Economía y Empleo y asumirlas por mí misma.

Segundo.- Este acuerdo tendrá efecto desde el día de la firma de la presente resolución.

Tercero. Notificar esta resolución al Concejal afectado.

Cuarto. Dese cuenta de la presente al Pleno de la Corporación, en la primera sesión que celebre.

Bostgarren.- Ebazpen hau argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki-oholean.”

Quinto. Publicar la presente resolución, tanto en el Boletín Oficial de Gipuzkoa como en el Tablón de Edictos de la Casa Consistorial.”

Udalbatzak, aho batez, adierazi du jakinaren gainean dagoela.

## SEIGARREN GAIA

### 2015EKO IRAILAREN 24KO ALKATEAREN DEKRETUA, KULTUR ETXEAREN KONTROLERAKO BIDEO KAMERAK INSTALATZEKO.

2015eko irailaren 24ko 217/2015 Alkatearen Dekretuaren berria ematen da:

“Irurako Udalak, Peio Arrese-Igor Kalea, 3an dagoen udal Kultur-Etxe kontrolerako bideokamerak instalatu eta erabiltzeari ekin nahi dio.

“Este Ayuntamiento de Irura de cara a controlar el edificio del Casa de Cultura Municipal, sito en Peio Arrese – Igor Kalea, 3, quiere proceder a la instalación y uso de videocámaras.

15/99 Legearen 20 artikulua diona kontutan hartuta: izaera pertsonaleko datuen fitxategiak sortzea, aldatzea eta kentzea, dagokion Boletín ofizialean iragarritako xedapen orokorraren bidez siolik egin daitekeela, bertan adierazten du zein den xedapen horren oinarritzko edukia.

Teniendo en cuenta el artículo 20 de la Ley 15/1999, que establece que la creación, modificación y supresión de datos de carácter personal sólo podrán hacerse por medio de disposición general publicada en el boletín oficial correspondiente. En dicho artículo señala, así mismo, el contenido básico de la citada disposición general.

Datuen Babeserako Erregistroa eratzen duen 2/2004 Esuko Legbiltzarraren Legearen 18 art-k diona kontutan hartuta: bere eremuan sartzen diren datu pertsonalen fitxategiak bertan inskribatzeko beharra ezartzen du.

Teniendo en cuenta el artículo 18 de la Ley del Parlamento Vasco 2/2004 de creación del registro de protección de datos, que establece que serán objeto de inscripción en dicho registro los ficheros de datos personales incluidos en su ámbito.

Kontutan hartuz 308/2005 Dekretua, 2/2004 Legea garatzen duena- ezartzen du Euskal Komunitate Autonomoko Entitate publikoek Datuen Babeserako Euskal

Teniendo en cuenta el Decreto 308/2005, de desarrollo de la Ley 2/2004, que establece que los Entes Públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco deberán notificar a la Agencia Vasca de Protección de Datos toda creación,



Agentziari jakinerazi behar diotela izaera pertsonako datuen fitxategien sorrera, aldaketa edo deusezte oro, horetarako ezarritako modelo normalizatua erabili behar delarik.

Hori dela eta, honako proposamena,

#### ERABAKI DUT:

Lehen.- Baimena ematea bideokamerak instalatzeko eta erabiltzeko, udal Kultur-Etxe eraikinean Peio Arrese-Igor Kalea, 3an.

Bigarrena.- Datu pertsonalen fitxategi hau sortzea, eranskinean jasotzen diren xehetasunekin:

-Fitxategiaren izendapena: udal Kultur-Etxe eraikinaren zainketa.

Hirugarrena.- Ebazpen hau argitaratzea Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Datuen Babeserako Euskal Agentziari jakinerazi.

Laugarrena.- Udalbatzari jakinaraztea ,egingo duen lehenengo bileran, ebazpen hau berresteko, ahal bada.

#### ERANSKINA

##### DATU PERTSONALEN FITXATEGIA

1. Fitxategiaren izendapena: Kultur Etxe udal eraikinaren erabilpena zaintzea bideokameren bidez.

a) Fitxategiaren helburua eta

modificación o supresión de ficheros de datos de carácter personal, a través del modelo normalizado que al efecto se elabore.

Ante ello, se propone la adopción del siguiente

#### ACUERDO:

Primero.- Aprobar la instalación y utilización de cámaras de video vigilancia en el edificio de Casa de Cultura municipal sito en Peio Arrese-Igor Kalea, 3.

Segundo.- Proceder a la creación del siguiente fichero de datos de carácter personal, con los detalles que se recogen en el anexo:

Denominación del fichero: Vigilancia del uso del edificio de Casa de Cultura municipal.

Tercero.- Proceder a su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa y su notificación a la Agencia Vasca de Protección de Datos.

Cuarto.- Dese cuenta al Pleno de este Ayuntamiento, en la próxima sesión que celebre, para su ratificación, si procede.

#### ANEXO

##### FICHERO DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL.

1. *Denominación del fichero: Vigilancia del uso del Edificio del Casa de Cultura Municipal a través de videocámara.*

a) Finalidad del fichero y usos

aurreikusitako erabilerak: Kultur-Etxe udal eraikinaren erabilpena zaintzea bideokameren bidez..

b) Zein pertsona edo kolektiborengandik lortu nahi diren izaera pertsonaleko datuak edo pertsona edo kolektibo horietatik nork eman behar dituen datuak nahitaez: kultur etxeko erabiltzaileak.

c) Izaera pertsonaleko datuak biltzeko prozedura; kultur etxea zuzenean bertara joaten diren pertsonen bidez.

— Kámara mini domo barifokalak IR-ekin.

- CCTV digitala zerbitzariko irudiak grabatze.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura eta bertan jasotako datu pertsonalen deskribapena: disko gogorrean eutsitako datu-basea. Irudia.

e) Datu pertsonalak lagatzea, eta, hala badagokio, aurreikus daitezkeen hirugarren herrialdeekiko datu-transferentziak: Segurtasun Indarrei eta Taldeei, Zerga Ministerioari, Epaileei eta Auzitegiei edo bestelako Herri-administrazioei lagatzea, zehapen-funtzioak gauza ditzaten, lege-izaera duen arau batek berariaz xedatzen duen kasuetan, Datu Pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11. artikulua ezarritakoaren arabera.

f) Fitxategiaren organo

previstos para el mismo: video vigilancia del uso de las instalaciones del edificio del Casa de Cultura Municipal y de su seguridad.

b) Personas o colectivos sobre los que se pretende obtener datos de carácter personal o que resulten obligados a suministrarlos: usuarios de la Casa de Cultura.

c) Procedimiento de recogida de los datos de carácter personal: directamente de los usuarios de Casa de Cultura municipal.

— Cámaras mini domo varifocales con IR.

-Grabación de procesador de imágenes digital de CCTV.

d) Estructura básica del fichero y descripción de los tipos de datos de carácter personal incluidos: base de datos en soporte de disco duro. Imagen.

e) Cesiones de datos de carácter personal y, en su caso, las transferencias de datos que se prevean a países terceros: cesiones de datos de carácter personal y, en su caso, las transferencias de datos que se prevean a países terceros: cesión a las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad, al Ministerio Fiscal, a los Jueces y Tribunales o a otras Administraciones públicas para el ejercicio de funciones administrativas sancionadoras cuando, en tales casos, esté previsto expresamente en una norma con rango de ley, según lo establecido en el artículo 11 de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de protección de Datos de Carácter Personal.

f) Órganos de las administraciones

erantzuleak: Irurako Udala.

Responsables del fichero: Ayuntamiento de Irura.

g) Datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezeztatzeko eta horien kontra agertzeko eskubideak erabil daitezke Zerbitzu edo unitate hauen aurrean: Irurako Udala, San Migel Plaza, 1.,- 20271- Irura (Gipuzkoa).

g) Servicios o unidades ante los que pudiesen ejercitarse los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición: Ayuntamiento de Irura, San Migel plaza 1- 20271, Irura (Gipuzkoa).

h) Segurtasun neurriak, beraien maila zehaztuz: Oinarritzko segurtasun maila.”

h) Medidas de seguridad con indicación de nivel: nivel de seguridad básico.”

Udalbatzak, 5 zinegotzi alde (EAJ/PNV) eta 3 zinegotzi aurka (EH Bildu), erabaki du berrestea.

## ZAZPIGARREN GAIA

### **EUSKAL FONDOAREN 2015EKO DIRU-LAGUNTZA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

EH Bildu taldeko proposatu du, mahai gainean ustea, Batzorde batean hobeto aztertzeko eta horrela erabaki da aho batez.

## ZORTZIGARREN GAIA

### **2 URTEKO HAURRAK ESKOLARATZEKO IRURAKO IKASTOLAREKIN HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Irurako Ikastolak bi urteko gelarako diru-laguntza eskatu ohi du urtero. Hori dela eta, Udalak hitzarmen bat sinatuko du Irurako Ikastolarekin.

## ERABAKIA

Lehena.- Aipatutako 2015/2016 ikasturterako hitzarmena ontzat ematea arauen arabera, eta Ana Jesús Leunda Gurruchaga Irurako Udaleko alkate-lehendakariari hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

Bigarrena.- Diru-kopurua jaso aurretik, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera, onuradunak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Nortasunaren egiaztatzea aurkeztea
  - b) Legearen 13. artikuluan adierazten diren egoeretan ez dagoela zinez aitortzea.
  - c) Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko duen ziurtagiria aurkeztea.
  - d) Aurkeztea, behar denean, baimendutako ordezkariak eginiko idatzia, ordaintzeko modua zehaztuz.
- Hori ikusita, Udalbatzak aho batez onartu du

**BEDERATZIGARREN GAIA**  
**ESTATUKO TRAFIKOKO ZUZENDARITZAREN ETA EUSKO**  
**JAURLARITZAREN ETA IRURAKO UDALAREN ARTEKO**  
**HITZARMENA, TRAFIKOAREN KUDEAKETARI BURUZ, ONARTZEA,**  
**HALA BADAGOKIO.**

Lankidetzaz Hitzarmena aurkezten da, Trafikoko Buruzagitza Nagusia Erakunde Autonomoaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta Irurako Udala Toki Erakundearen artekoa, bide segurtasunaren arloko informazioa trukatzeko eta Datu baseetan sartzeko.

Udalbatzak, aho batez, hau erabaki du:

**ERABAKIA**

Lehena.- Aipatu den Hitzarmena onartzea.

Bigarrena.- Ana Jesús Leunda Gurruchaga Irurako Udaleko alkate-lehendakariari hitzarmena sinatzeko baimena ematea.

**HAMARGARREN GAIA**  
**2016KO IRURAKO JAI EGUNA IZENDATZEA, HALA BADAGOKIO.**

2015eko uztailaren 8ko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu da Eusko Jaurlaritzako 118/2015 Dekretua, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2016. urteko jaiegunen egutegia onartzen duena eta 2.2 artikuluan arabera udalek proposatu behar dute tokiko jai eguna.

Hori ikusita, udalbatzak aho batez hau onartu du:

**ERABAKIA**

1.- 2016. urteko Irura udalerriko tokiko jai eguna izatea irailaren 29a, San Migel.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Euskal Jaurlaritzako Lan, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari.

**HAMAİKAGARREN GAIA**  
**TRINKETEKO TABERNAREN KONTZESIO ADMINISTRATIVO A ETA**  
**BALDINTZA PLEGUAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

Udal honek bi deialdi egin ditu Udal Trinketeko tabernaren ustiapen emakida esleitzeko. Lehenak ez zuen gainditu probaldiaren epea eta bigarrena esleitu gabe geratu zen.

Este Ayuntamiento ha convocado dos veces la concesión de la explotación del bar del Trinkete Municipal. La primera no superó el periodo de prueba, la segunda quedó desierta.

Geroago, bi aldiz esleitu da, behin behingoz, zerbitzua betetzeko, gutxienez.

Posteriormente se ha adjudicado dos veces, con carácter provisional, al menos, para cubrir el servicio.

Esleipenaren izapidea hastea dagokio berriro.

Otra vez corresponde iniciar el proceso de adjudicación.

Hori ikusita, UDALBATZAK aho batez erabaki hau onartu du:

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad, lo siguiente:

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

1.-Ametsa udal Trinketeko taberna zerbitzua kudeaketa-kontratatzera eta baldintza ekonomiko eta administratibo partikularren agiriak onartzea, baita dagokion espedientearen ere. Esleitzeko prozedura irekia izango da.

1º.-Proceder a la contratación de la gestión del bar del trinkete municipal Ametsa y aprobar el Pliego de Condiciones Económico-Administrativos Particulares y el expediente correspondiente. El procedimiento será el abierto.

2.-Esleipenaren espedientearen hastea.

2º.- Iniciar el expediente de adjudicación.

**HAMABIGARREN GAIA**  
**BESTE ERAKUNDEETAN IRURAKO UDALAREN ORDEZKARIAK**  
**ONARTZEA.**

2015eko uztailaren 7ko Irurako Udalaren Udaltzainaren erabakiaren Udala hainbat erakundetako partaideen ordezkariak izendatzea.

Denbora igaro, eta eskarmentua ikusita nahi da aldaketa hauek proposatzea, datorren Udabatzarako.

Hori ikusita udabatzak erabaki du hau onartzea:

## ERABAKIA

1.- Gipuzkoako Ur Kontsorzioan ordezkari titularra hau izatea: Jesús María Alonso Insausti (José Ramón Epelde Irizarren ordezkari).

2.- Tolomendin, ordezkari titularra hau izatea: Jesús María Alonso Insausti (José Ramón Epelde Irizarren ordezkari).

Akordio hau jakinaraztea dagozkion Erakundeei.

Ainhoa Ugalde zinegotziak galdetzen du nola dagoen UEMAn partizipazioa.

Alkateak erantzuten du eztabaidatzen hari direla eta urtea bukatu aurretik erabakiko dela partizipazioa. Urteko ekarpena onartuta dago eta izango da Uemako langileekin jakiteko bere planak.

Ainhoa Ugaldek erantzuten dio, Udalaren ordezkari izendatzea falta dela eta berak ez daukala arazorik bera zuzenean izateko.

## HAMAHIRUGARREN GAIA

### EMAKUME MUNDU MARTXATIK ERAKUNDEETAN AURKEZTEKO DEKLARAZIO INSTITUZIONALA ONARTZEA, BADAGOKIO.

Mozio hau aurkezten da:

#### **Adierazpen Instituzionala**

Emakumeen Mundu Martxa 1995ean ñOgia eta larrosakö izeneko lehen martxa batekin hasi zen mugimendua da, ondoren Emakumeen Mundu Martxa (EMM) izena hartu zuena. Urteetan ekimen hau nazioarte mailan emakumeen arteko aliantzak sortzen aritu da lanean, eta helburu nagusi gisa sare feminista bat sortu eta munduan nagusi den matxismoa ikusaraztea izan du.

Hainbat ekimenen artean, bost urtetik behin nazioarte ekimen bat antolatzen da eta aurtengoa IV. Nazioarteko Ekintza izango da. Azken hau, Europa osoa zeharkatuko duen ibilbide batekin gauzatuko da, martxoaren 6an Kurdistanen hasi eta urriaren 17an Lisboan bukatuko dena. Hilabete hauetan zehar EMMko hainbat kide herrialde ezberdinetan barrena ibili dira, sarea

#### **Declaración Institucional**

La Marcha Mundial de las Mujeres es un movimiento que comenzó en 1995 con una primera marcha llamada ñPan y Rosasö y después tomó el nombre de la Marcha Mundial de las Mujeres (MMM). Durante años esta iniciativa ha trabajado para generar lazos internacionales entre mujeres, cuyo objetivo más básico es generar una red feminista y visibilizar el machismo que impera en el mundo.

Entre otras actividades se organiza cada 5 años una acción internacional y este año tendrá lugar la IV Acción Internacional. Ésta se materializa a través de un recorrido por toda Europa, que comenzó el día 6 de marzo en Kurdistan y que terminará en Lisboa el día 17 de octubre. Durante estos meses miembros de la MMM han ido recorriendo distintos países, estrechando redes y realizando

sortu eta hainbat aldarrikapen zabaltzen. Martxa Euskal Herrira irailaren 28an helduko da Tafallara eta urriaren 4a bitarte herri ezberdinak zeharkatuko ditu Bilbon azken ekimen nazionalarekin amaitu arte.

Aurten lau lan-ildo adostu dira mundu mailako emakumeen sarearen eduki eta helburuak barnebiltzen dituztenak:

- **Sistemarteko indarkeriak.** Egunerokoan mendean hartu eta azpiratzen gaituzten eta gure gorputz eta lurraldeetan egikaritzen diren opresio sistema anitzak salatzen ditugu. Pobrezia, lurraldeen desjabetzeak, gure gorputzekiko eskubideak ukatzea, indarkeria zuzen, sinboliko eta kulturalakí batera jarduten dute emakume, trans, lesbiana, migrante, aniztasun funtzional, beltz edo indigenon gorputzen aurka. Indarkeria matxistaren konplexutasuna salatzen dugu eta aldi berea oinarria ikusarazten dugu, hau da, indarkeria matxistak beste hainbat indarkeriekin batera jarduten duela zeharlerro ezberdinen bidez.
- **Bizitzaren iraunkortasuna** bizitza erdigunean jartzea da eta inola mozkin ekonomikoa edozerren gainetik lortzea helburu duen merkatuen logikaren baitan. Jendarte bat ez da justua bizitza mantentzea helburu duten eta tradizionalki feminizatuak izan diren lan horiek ikusezin egiten dituen artean. Elikadura burujabetza, lurra txikitzeari, kutsatzeari, desjabetzeari eta lapurtzeari uztea, oinarrizkoa da.
- **Gorputzak eta sexualitateak.**

diversas reivindicaciones. La marcha llegará a Euskal Herria el 28 de septiembre comenzará su recorrido en Tafalla y terminará en Bilbao el día 4 de octubre donde se realizará un gran acto final.

Este año se han acordado cuatro ejes de trabajo que unifican los contenidos y objetivos de esta Red Mundial de Mujeres.

- **Violencias Transistemicas.** Denunciamos los múltiples sistemas de opresión que se materializa en la violencia que se ensañan en los cuerpos y territorios para someternos y dominarnos cotidianamente. La pobreza, la expropiación del territorio, la negación del derecho al propio cuerpo, la violencia directa, simbólica y cultural operan de forma conjunta para enviolentar aquellos cuerpos entendidos como mujeres, lesbianas, trans, migrantes, diversas funcionales, negras o indígenas. Denunciamos la complejidad de la violencia machista y así mismo visibilizamos una cuestión básica: opera de forma conjunta e interseccionalizada con otras formas de violencia.
- **La Sostenibilidad de la Vida** es poner la vida en el centro, no en la lógica de los mercados de maximización del beneficio económico a toda costa. Una sociedad es injusta cuando invisibiliza y desvaloriza todos aquellos trabajos que mantienen la vida y que tradicionalmente han sido feminizados. La soberanía alimentaria, el dejar de destruir la tierra, contaminarla, expropiarla o robarla, es fundamental.

Gure gorputzak gure lurraldeak dira, eta beraz, haiekiko jabetza eta autonomia aldarrikatzen ditugu. Gure gorputzen eta sexualitateen jabe gara, gure generoa nahi bezala definitzen dugu eta nahi ditugun harremanak ditugu. Lesbianon, transon, aniztasun funtzionalon edota arrazializatutako gorputzak borroka feministaren zati garrantzitsua dira.

- **Sarean lan egitea eta aniztasuna kudeatzea.** Lurralde ezberdinetatik gatozen emakumeak gara, bizipen, ibilbide, jakintza, gaitasun, identitate, borrokamodu eta aldarrikapen ezberdinekin, eta horiek defendatu, balioetsi eta errekonozitu nahi ditugu, hierarkiarik ezarri gabe. Aldarrikatzen dugu aniztasuna aberastasun bat dela, ondasun komun bat, gu batzeko balio duena, eta patriarkatuaren oinordetzarekin, emakumeak historikoki etsaitu eta banatu dituen tradizioarekin hausteko balio duena.

Udal honek Emakumeen Mundu Martxari babesa eman eta bere esku dauden baliabideekin berdintasunaren alde lan egiteko eta neurriak hartzeko konpromisoa hartzen du, helburu hauekin:

- **Indarkeriari** dagokionez, ekintza protokoloak martxan jarri, sentsibilizazioan lan egin eta indarkeria matxistari dagokion formakuntzak burutzea. Halaber, EMMren protokoloari gure babesa adierazten diogu eta indarkeria sexistaren aurkako salaketa eta deialdiekin bat egiteko konpromisoa hartzen

- **Cuerpos y Sexualidades.** Nuestros cuerpos son nuestros territorios, y reivindicamos la soberanía y autonomía sobre ellos. Somos dueñas de nuestros cuerpos, de nuestra sexualidad, definimos nuestra identidad de género y nuestras relaciones como nos da la gana. El cuerpo bollero, el trans, el diverso funcional, el racializado son parte fundamental de las luchas feministas.
- **Trabajo en red y gestión de la diversidad.** Somos mujeres provenientes de geografías distintas con experiencias, recorridos, saberes, capacidades, identidades, formas de lucha y reivindicaciones diferentes que queremos defender, valorar y reconocer sin establecer jerarquías. Reivindicamos la diversidad como una riqueza y un bien común para unirnos y romper con la herencia patriarcal que históricamente ha enemistado y dividido a las mujeres.

El Ayuntamiento de Irura desea mostrar su apoyo a la Marcha Mundial de las Mujeres y a comprometerse a trabajar en favor de la igualdad y poner para ello todas las medidas que estén en su mano para trabajar en la consecución de estos fines:

- En cuanto a **la violencia**, trabajar para poner en marcha protocolos de actuación, trabajar en la sensibilización y formación en materia de violencia machista. Así mismo mostramos nuestro apoyo al protocolo de la MMM y nos comprometemos a adherirnos a las convocatorias de denuncia y repulsa de la violencia sexista.



- Zaintzaileen **bizitzak hobetzeko** lan egitera eta zaintza lanak erazteko zerbitzu publikoak ahalbidetzera.
- **Aniztasun sexuala** eta genero identitatea kontuan izanik lan egitea, eta lesbofobia, transfobia, arrazismoa eta kapazitismoaren aurkako planak burutzea.
- **Emakumeen jabekuntza** sustatzea eta baita saretze eta emakume taldeen sorrerak bultzatzea.
- Trabajar para **mejorar la vida** de las cuidadoras, habilitar servicios públicos que faciliten los trabajos de cuidado.
- Trabajar teniendo en cuenta la **diversidad sexual**, la identidad de género, realizar planes de actuación contra la lesbofobia, la transfobia, el racismo y el capacitismo.
- Fomentar el **empoderamiento de las mujeres** así como impulsar la creación de redes y colectivos de mujeres.

Gure babesa erakusten duen adierazpen hau Emakumeen Mundu Martxako Europako Ordezkaritzara bidalia izango da. Está declaración mostrando nuestro apoyo se enviará a la Secretaria Europea de la Marcha Mundial de las Mujeres.

Hori ikusita, Udalbatzak, aho batez erabaki du onartzea.

## HAMALAU GARREN GAIA

### GALDE-ERREGUAK.-

Puntu honetan gai hauek aztertu dira:

A) Ainhoa Ugaldek galdetu du ea, azkenean, zer egingo den zaharren lokalarekin.

Alkateak erantzun du estudio bat egin dutela eta Udala ezin dela sartu horretan.

Ainhoa Ugaldek estudioaren kopia eskatu dio.

Alkateak esan du numerorik gabe dagoela; plazan bi taberna badaudela eta herrian hiru gehiago. Ez dela behar Udalak beste taberna bat bultzatzea.

Mikel Iturbek adierazi du ea ez den errespetatuko berrehun edo hirurehun pertsonak adostu zutena.

Jesus Maria Alonsok esan du lehen ere hainbat gauza eskatu zirela Udalean eta ez zela kasurik egin. Aukera hori, taberna berriarena alegia, eginezina dela. Beste gauza bat dela partikular bat etortzea zerbitzua emateko.

Alkateak esan du lehen jubilatuen lokala zegoela eta bazegoela arrazoia taberna bertan izateko, baina, orain ez dagoela jubilatuen lokalik eta ez dagoela motiborik taberna jartzeko.

Jose Ignazio Imazek esan du erabaki hori hartu dela batzorderik eta eztabaidarik egin gabe, eta galdetu du ea hori izango al den PNVren joera aurrera begira.

Alkateak erantzun du bilerak egingo direla.

B) Mikel Iturbek okindegiko espaloiarri buruz galdetu dio alkateari.

Alkateak erantzun du bide hori Diputazioarena dela eta bertara joan nahi dutela gune horretan zer egin daitekeen aztertzeko, edo aurreko espaloia zabaldu edo beste aukeraren bat kontuan izan.

Ainhoa Ugaldek erantzun du gestio hori luzerako dela eta, orain, gune hori oso arriskutsua dela, edozein momentutan istripu bat gerta daitekeela. Aipatu du erreforma proiektua eginda dagoela eta burutzea besterik ez dela geratzen.

Jose Ramon Epeldek esan du bere eskriturretan agertzen dela zati bat berea dela.

Ainhoa Ugaldek erantzun du bilera asko egin direla berarekin (Jose Ramonekin) eta udal-teknikariarekin arazoa konpondu ahal izateko.

Gero, eztabaidan hasi dira: jabeak, denboraren poderioz, bertan konponketak egin dituela... ez dituela egin...

C) Mikel Iturbek esan du festetan kontratazio bat egin dela eta ez dakigula nondik atera den pertsona hori.

Alkateak erantzun du bi zerrenda daudela; horietako batean denak lanean zeudela, eta bestean ere gehienak lanean zeudela edo ez zutela lanik egin nahi hamabost egunez bakarrik; azkenean, inor ez zegoela prest eta beste pertsona bat aurkitu behar izan zutela, egun horietan lan egiteko prest zegoena. Alkateak adierazi du aurrera begira bi zerrenda egingo direla: bat kaleko konponketak egiteko eta bestea eraikinak garbitzeko, eta hauek urte osorako balioko dutela, udal garbitzaileen bajak eta oporrak ordezkatzeko.

Jose Ignacio Imazek adierazi du PNV oso kritikoa izan zela aurreko udal-taldearekin, pertsonalaren kontratazioa zela-eta: langileak denbora luzez aritzen zirela, kontrataziok "a dedo" egiten zirela... Orain, beraiek etorri direla eta hasi direla ikusten gauzak konplexuagoak izaten direla, eta jada "a dedo" kontratatatu dutela. Imazek adierazi du pertsona batzuk denbora luzez aritu izan direla, baina beti hautatze prozesu baten ondorioz, eta, gainera, hautatze prozesu horietan korporatiboek ez zutela inoiz parte hartu, udaleko teknikoek baizik. Gainera, ezin dela beti langileak aldatzen ibili, denborarekin eskarmentua hartzen dutelako eta berriei, aldiz, erakusten hasi behar zaielako.

D) Jose Ignazio Imazek zabor bilketaren aldaketari buruzko informazioa eskatu du.

Jose Ramon Epeldek erantzun du Tolosaldeko Mankomunitatearekin bilerak egiten ari direla.

Jesus Maria Alonsok esan du PNVko hauteskunde-programan agertzen zela "atez ateko" sistema kentzea.

Alkateak adierazi du erreferendum bat egin zela eta aurreko udalak ez zuela baloratu. Emaitzak hor daudela eta saiatu zirela lehengo udalarekin akordio batera iristen, baina ez zutela kasurik egin.

Jose Ignazio Imazek eskatu du dagoen informazioa, behintzat, oposizioeko taldeari pasatzeko.

Alkateak erantzun du Mankomunitatera besterik ez direla joan informazioa eskatzera eta zein aukera dauden jakitera.

Jesus Maria Alonsok adierazi du zabor sistema aldatuko dela, baina oraindik ez dakitela nola.

E) Alkateak EH Bildu udal-taldeari galdetu dio ea berak kenduko duen udaletxeko balkoian jarritako pankarta. EH Bildu taldeak baietz adierazi du.

Alkateak galdetu du ea kenduko duten ere udaletxe atzean dagoen pankarta.

EH Bilduk erantzun du berak ez duela pankarta hori kenduko. Urkijo jaunak agindu zuela ikurrina udaletxeko balkoitik kentzea, eta horregatik, erantzun gisa, jarri zela atzealdean pankarta hori.

Aztartzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 21:00etan eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIAZTATZEN dut idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA